

Ze ba? eta ze bada?
Baztan-Bidasoa inguruko
gazteen hizkeran.
Aldakuntza linguistikoa abian

ORREAGA IBARRA MURILLO*

0. SARRERA

Baztan eta Bidasoako hainbat herritako gazteen hizkeran ze ba galdetzai-
learen erabilera berri bat, berrikuntza bat, ezagutu dugu eta horren era-
bilpena zehaztea da artikulu honen xedea.

Ezaugarri linguistiko honen lehen berria izan nuen nire Unibertsitateko
ikasleei entzuterakoan. Hasieran haiek ez ziren honetaz konturatu, alegia,
honen erabileraren berri ez zuten, nahiz behin baino gehiagotan txertatzen
zuten beren esaldietan.

Oharrarazi nienean, eskolan bertan, Sunbillako neska gazte batek erabili
zuen, baina, berari eta gainerakoei ohargabeki pasatu zitzairen; zioenez, bere
ahizpak anitz erabiltzen zuen. Gainerako gazteek ez zioten garrantzirik ere
eman erabilera horri, galdetzen zuten ea gaizki zegoen eta Bortziri eta Baztan
aldean maiz entzuten zela zioten.

Ondoren, eskualde honetako bertze gazteei galdetu nien ea erabiltzen zu-
ten. Hasieran, Zubietako ikasle batek erabat ziur erantzun zuen Zubietan
ezet, baina, berak ez zuela txartzat jotzen, bere inguruan nahiko arrunta bai-
tzen. Adi egoteko eskatu nien ea inguruan hori entzuten zuen eta, Zubieta-

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Artikulu hau FF 12008-01844 “Origen y evolución de los dialectos vascos”, izena duen proiektuaren babespean burutu da.

ko 20 urteko ikasle horrexek, asteburuan bertan, entzun zuen 14 urteko gaztetxo baten ahoan. Honako testuinguruan agertu zen: galdera bat egin eta erantzuna hauxe izan zen:

Galdera: *Zengatik etziñen ateri?* Erantzuna: *zeba amak san zitten Ittunara atetzen banintzen etzittela Doneztora atetzen utziko.*

Ohargabe pasatzea nahiko arrunta da, izan ere, aldaketa linguistiko bat abian dagoenean, hasieran ohargabeki pasatzen da, ondoren ondokoek, ez dute txarxat jotzen eta ezaguna egiten zaie; azkenean haiek ere bukatuko dute aldaera hori erabiltzen.

Aldaketa sintaktikoaren hedapenari buruz oso argigarriak dira hitz hauek:

Los cambios sintácticos tienen muchos rasgos en común con los fonéticos. Ambos tipos de cambio se asientan en determinados contextos, asociados, con frecuencia a elementos léxicos concretos. El cambio sintáctico parece seguir el modelo de curva en forma de S, lento-rápido-rápido-lento, que caracteriza al cambio fonético y al que nos hemos referido. El cambio se inicia con lentitud y, de repente, como una bola de nieve al rodar cuesta abajo, se hace más rápido y crece al acumular elementos recogidos a su paso. Después, su avance vuelve a hacerse más lento (Aitchison, 1993: 110).

Arestian genioenez, metodologia hauxe izan da: behin fenomenoaz ohar-tu ondoren, eskatu nien ikasleei grabaketak egin zitzaten haien artean solasean zeudenean, edota noiz egiten zuten ohartzen baziren papertxo batean apuntatzeko, edo biltzeko eta orobat, haien adinekoei, alegia, bertze gazteei, anai-arreben adibidetegia ekartzeko; bertzaldetik, nik neronek eskolan entzuten nienean apuntatzen nuen. Horren ondorio dira datu hauek. Bistan denez, anitzetan suertatzen da oztopo handiena izaten dela ikertzailea bera, horregatik, hein batean bederen, beraiek izan dira ikertzaileak. Trudgillek ere horrela aitortzen du egindako ikerketa batean (Trudgill, 2002: 50), eta, horregatik enkargatzen dio ikertzaile gazte bati ikerketa egin dezan.

Non gertatzen ari da berrikuntza linguistiko hau, alegia, bildutako adibidetegia zein herritatik atera dugu? Hasteko, Baztango Iruritan egindako grabaketetan atera zaizkigu adibide anitz, eta hor ageri ziren gazteak denak baztandarrak ziren eta denen gurasoak euskaldunak, beraz, giro euskaldunean haziak. Bertzaldetik, Sunbillako, Donamariako eta Berako gazteek egindakotetan ere ageri dira. Horrezaz gain, Zubietako 20urteko gazte batek berak ez duela erabiltzen zioen, baina, gazteagokoei, erraterako, 14 urteko batek, baietz. Bertzaldetik, Baztan, Sunbilla eta Bortziri inguruko ikasleei guk geuk entzun diegu hauek erabiltzen gure klaseetan.

Erran behar da, gazteak ez zirela honetaz konturatzen, inongo kasutan, guk esan arte. Horrela, Baztango ikasle batek dio ezaugarri horri buruz galdetzerakoan: “Da rarua zeba batzuten erten dut zeba eta bertzetan zetaz”. Gure ustetan, gune hedatzailea ikastetxeak izan daitezke, Doneztebekoa edo Lekarazkoa, bi hauetara joaten baitira bigarren DBH eta Batxillergoa ikastera. Dударik gabe, herriko festak, diskotekak eta inguru honetan gazteek daukaten bertzelako harreman ugariak ere gune hau sortzea eta indartzea ekarri du.

Bistan denez, hau Bidasoaldean sorturiko fenomeno dela erran dezakegu, eta eremu hau, hain zuzen ere, Zelaietak irudikatzen duen eremuarekin

bateratsu datorrela pentsa daiteke. Zelaietak (2008: 224) diosku: “Bidasoaldea ez da atzo goizeko izena, tradizio luzea baitu...”. Ere mu honetako ikuspegi geolektala zein den argitzen digu orrialde honetan, “(...) *Aitzitik, continuum batean daude bertako hizkerak. Multzo honetako ezberdintasun gehienak gradualak dira, bat-bateko jauzi handirik gabeak*” (Zelaieta, 2008:140). Eta honek erakusten digu horixe bera, ezaugarri hau hedatzen dela geografikoki honako haran hauetan: Baztanen, Malerrekan, Sunbillan eta Bortzirietan (Bera), ez dugu Bertizaraneko adibiderik.

Nolanahi dela ere, eremu hau ez da homogenea. Sunbillari buruz hau ere diosku:

Sunbillan gauzak zerbaixko aldatzen dira. Ez sobera. Anitzez ere gehiago dira Malerrekak eta Bortzerriek elkarrekin dituzten kidesan linguistikoak ezberdintasunak baino (2008: 141). Aurretik erraten du: (2008: 10) Gure azterketaren arabera, erdibidean baitago Sunbillako euskara: tarteka, Malerrekarekin; tarteka, Bortzerriekin.

Fenomeno hau azaltzeko, alde batetik badugu interdialektoaren fenomeno. Trudgillen (1986: 83) ustez, forma interdialektalak dialektoen ukimenaren ondorioz sortutako formak dira. Forma hauek anitzetan ez dugu aurkitzen jatorrizko dialektoetan, ez dute zertan “tarteoak” izan, kasu honetan bezala. *Zeba* ez da inongo dialektoaren erantzunetan agertzen. Dialektoek elkarren artean eraginak izaten dituzte, elkarri eragiten diote, hori da gertatzen den beste prozesu bat. Jakina, dialektoen kontaktoen ondorioz ukipenak mota askotakoak izan daitezke, orduan, forma interdialektalak sor daitezke egoitzapenaren bidez.

Bistan denez, eremu geolektala aldatzen ari da urte batzuetatik hona, eta baita eraginak eta gune hedatzaileak ere. Bertzaldetik, nolabait Baztan-Bidasoa entitate linguistiko bezala hartzeko arrazoiak badirela uste dugu; tasun batzuetan dinamika geolinguistiko zerbait badutela agerian baitago. Baztanen, alde honetatik, Ipar Euskal Herriko aldaerekin zituen loturak ahuldu dira eta Nafarroarekikoak gero eta indartuagoak daude.

Bertzaldetik erran behar da ez dugula erabilera honen aztarnarik Iruñeko gazteen artean aurkitu, baina, dudarik gabe, gazte hauek harreman estuak dituzte kanpoko bertze ikasleekin, unibertsitatean bertze gazte euskaldunekin daude, eta, hori dela eta, baliteke hau hedatzea ala ez.

Dena dela, zergatik errotzen dira aldaketak eremu batzuetan eta bertze batzuetan ez? Caminok (1997) gizartezko harremanen nondik norakoei ematen die garrantzia:

Hizkuntzaren barreneko desberdintasuna ez dago hizkuntza aldaketaren baitan bakarrik, hiztun taldeen edo erkidegoen arteko komunikaziorik ezaren baitan baizik. Ekonomia, gizarte, historia eta politika mailako eragileek sortzen duten hartu-emanen gradueltasunari eta norabideari zor zaizkio hizkuntza aldakiak: horrezaz landa, espazioaren mugak eta hiztunen gizarte egituraren berdintasun/ desberdintasun mailak ere eragile zuzenak ditugu.

Ez dakigu berrikuntza hau bertan geldituko den, baina, jakin badakigu Nafarroako Unibertsitate Publikora iritsi direla egitura horiek, gazteek berek duten mugikortasuna dela medio.

Eta, bistan da, aldaketa linguistiko batzuetan oso garrantzitsuak dira gazteek eta haurrek hasten dituztenak, Trudgillek dioenez:

It is only by studying the speech of the next generation along, in turns out, that we obtain a true picture of the full range of linguistic changes; ideally, however, the two approaches should be combined. In this way we would achieve a better understanding of the relative importance of **children, adolescents** and adults in the production of different types of linguistic change (Trudgill, 2002: 52).

Nola hedatzen da aldaketa linguistiko bat? Anitzetan badakigu gizarte sareek eragin handia dutela berrikuntza linguistikoak sakabanatzeko; horregatik, hiriguneak izan ohi dira gune hedatzaileak. Milroyek (1980: 185) dioenez, urbanizazio eta industrializazio prozesuek jendea sakabanatzeko edo barreiatzeko joera dute, gehienetan gizarte sare tradizionalak harreman estuak izaten baitira eta, honen ondorioz, estandarizazio linguistikoa gero eta sendoagoa izan daiteke hiriguneetan.

Bertzaldetik, ikus dezagun nola hedatzen diren hizkuntz aldaketak. Aldaketa linguistiko batzuk erabat burutu diren ala ez ikusteko hurrengo belaunaldia aztertu behar da. Izan ere askotan aldaketak oso txikiak dira. Ez da harritzekoa gazte batek ezaugarri linguistiko bat erakustea, eta ondoko bere lagun minak ezaugarri horixe bera ez izatea (Trudgill, 2002: 56). Era berean Trudgillek diosku hainbat aldaketa linguistiko berak iragarri zituenak, ez zirela bete, eta bat-batean eten egin zirela (Trudgill, 2002: 57).

In other cases, we find a reverse kind of phenomenon. That is, we observe that some changes which we would have predicted from the 1968 data to be ongoing appear to have stopped or to be continuing in rather complicated and unpredictable ways.

Gainera aipatu behar da, aldaketa linguistikoak ez dira horrela bakarrik hedatzen: pertsonaz-pertsona edo eremu eremu, edo mailaz maila edo ingurune linguistikoz-ingurune linguistikoz, baizik eta testuinguruko estiloz-testuinguruko estiloz? (contextual style to contextual style). Eta Trudgillek konfirmatzen du aldaketa linguistiko gehienak hasten direla estilo arduragabeko bernakularrean, eta gero hedatzen direla estilo formalagoko aldaeretan (Trudgill, 2002: 58).

Jarraian aztertuko dugu zein testuingurutan agertzen den galdetzaile hau:

1. ZE BA? GALDETZAILE MODUAN

Hauxe dela jatorrizko erabilera erran dezakegu, alegia, *zer ba?* galdetzaile moduan erabiltzea, *zergatik* edo *zer dela ta* galdetzaileen baliokide bezala.

Ba(da) ondoriozko lokailu bezala funtzionatzen du, zenbait testuingurutan *beraz*-en parekoa da; hala ere, *ba(da)* lokailuak eremu zabalagoa dauka eta *beraz*-ek hartu ezin dituen adierak izan ditzake. Jatorriz *bada* formatik datorrela argi badago ere, Euskaltzaindiak Euskara mintzatuan *ba* forma laburtua onartzen du, baina neutrorako *bada* hobesten du (Zubiri, 2000: 804).

Hau da erabilera “zuzena” edo “ohikoena”; egia esan, jakin beharko genuke eremu honetan erabilera hau hedatua zegoen ala ez. Egia erran, inguru hauetako gramatika dialektaletan ez dator deskribatua. Erraterako, Salaburuk (Salaburu & Lakar, 2005: 186 eta gainerakoetan), bere azken liburuan aztertzen ditu kausazko

esaldiak baztaneraz, eta hor gisa guztietako kausazko lokailuak daude: *bait*, *zeren*, *zeren bait* -ekin osaturikoak, eta *-elako*, *-elakotz*, morfemez osaturikoak, baina *ze-ba* menderagailuz osaturik ez dago batik ere; guk geuk Erroibar eta Esteribarkoetan ez dugu gisa honetako esaldirik kausazko esaldietan (2000: 216, 217). Honenbertzez, azken honetan ugaldu den fenomeno delakoan gaude:

Ze bada = *zergatik?*-en baliokidetzat hartu da. Jakin beharko genuke nolako hedapena zuen hau galdetzaile bezala Baztan inguru horretan. Gure ustez ez du hedapen handirik izan orain arte, nik uste dut *zertaz?* edo *zergatik?* erabiliagoak izan direla; behintzat Salaburuk (2005) ez du testigatzen, eta Izetaren hiztegian ere ez dator. Honako lokailu hauek, ordea, bai sartzen dira: *zentaz*, *zeren* (porque) adierarekin.

Erabilera arautuan *ze ba?* galdetzailea izan beharko litzateke, bertzerik gabe, biluzik. Honatx *ze ba?* *¿pues?*, *¿qué, pues?*, *¿por qué, pues?* galdetzaile moduan erabilia.

A- *Torri naiz ta banakien zinetela xokuan.*

B- *Ze ba?*

A- *Aitzen zen buyakin. Ta gero beiretu dut, hurbildu naiz, ta kusi dut ta erran dut: dago erekie. Ta yasta daude hemen* (Baztan).

A- *Bira oi bai da kafesne koloria, tio!*

B- *Oi bai.*

A- *Ze ba?*

B- *Guri kafe hutse man daku. Kusi daku sobera lo* (Baztan).

A: *Neri hori erran didate, ta gainera Maria zegon "bastante desgraciada".*

B: *Ze ba?*

A: *Ze... zegon ostion kakakin, bo! eztakit* (Bera).

Honako beste adibide hauek Baztangoak dira. Kartetan jolasean ari diren gazteak ikasleak dira. Denak euskaldunak, gurasoak ere euskaldunak:

A- *Ni ai naiz aspertzen, ta aldatzen badugu yokuz?*

B- *Gero aitzen gara 'a eskoba'.*

A- *Ze ba?*

B- *Naizelako hortan onena* (Baztan).

A- *Torri naiz ta banakien zinetela xokuan.*

B- *Ze ba?*

A- *Itzen zen buyakin. Ta gero beiretu dut, hurbildu naiz, ta kusi dut ta erran dut: dago...*

2. ZEB A KAUSAZKO ESALDIETAN ZEREN, BAIT- ETA -LAKO-REN ORDEZ

Kausazko esaldietan, erantzunetan erabiltzen da *ze ba*, *zeren* baliokide gisa. Hori dela eta, ondoren datorrena ezezaguna da eta berria izan daiteke, maiz arrazonamenduei hasiera emateko erabiltzen delarik.

Honezaz gain, egia da euskara batuaren etorrerarekin hedatu dela anitz *ze* lokailua, bizkaieraz bereziki: adib. **kontuz ibili, ze oso labainkor dago*. Gisa berean, ahozko hizketa arruntean orokortu da honako hau: *ze... eta*; adib: *- ez du azterketa egingo ze ez du estudiatu (eta)*.

Galdera-erantzun pare honetan argi ikusten da *zeba*-ren erabilera erantzunean analogiaz sortzen dela; horrela, galderaren galdetzailer berbera errepikatatu egiten da erantzunean, eta, ondoren, ez da inolako menderagailurik jarritzen, alegia, ez dago *-bait* edo holakorik:

A- *Barkatu.*

B- *Ze ba?*

A- *Zeba jo datzut nahigabe.*

Hurrengo adibide honetan, *zeba* erabiltzen du eta aldi berean *-lako* kausazko esaldietan, kasu honetan kausa baten aitzinean gaude, galderan eta erantzunean, “barkamena eskatzen dizut jo zaitudalako”; kausa jotzea izan da, beraz, kausa-ondorio harremana dago.

Lokailu hau erabiltzeak ez du adierazi nahi aldaera bakarra nagusitu denik, baizik eta, txandaketan bi aldaerak erabiltzen direla; ondoko kasuan azaltzen dugun bezelaxe.

(...) *gainera igual interesatuago euskaldun Saratar batekin ezagutzen ttuztelako guttigo eh... igual... igual interesatugua ta dena. Bino hori preziski ez dugulako hainbertze izautzen eta... zeba hombre, ikasi dut ere bai Iruñan ta...* (Bera).

Gauza bera gertatzen da gazte baztandarren elkarrizketa honetan:

Bañon asteazkenian geldituko naiz seguraski Iruñen, atxaldian, zeba torri bar zait Itziar gan barra dugulako eztakit norat, ertera baztandarrereko opari hoiek nola in ta eztakit ze, eta gero torko naiz Iruñetik berakin.

Kasu honetan gertatukoaren azalpen bat ematen du, alderantziz ere eman daitekeena: “Iruñen geldituko naizenez, etorri behar zait Itziar!”

Bertzaldetik, hau dateke modu bat bi menderagailu txandakatzeko eta aberastasun gehiago emateko diskurtsoari, berbera ez errepikatzearren.

3. ZEBÁ, ZERTAZ EDO ZEREN-EN ORDEZKOA

Adibide hau Baztango neska batek bildu du, haien arteko solasean¹, gurasoak Urdazubikoak eta Zozaiakoak ditu, honenbertzez, erabat euskaldunak. Kasu honetan, bistan denez, gune erabat euskaldunean errotu da aldaketa hau, behintzat etxean euskaldunak dira gurasoak, baina, horrek ez du erran nahi institutuian eta gazte giroan bertze aldaera batzuk entzuten ez dutenik. Bere gurasoek eta beraien belaunaldiko gainerakoek hitz hori ez dutela erabiltzen dio. Honek adierazten du aldaketa linguistikoak ez duela zertan bertzean, kasu honetan, etxekoen, mintzamoldeen eraginez hasi behar.

Hala ere, esaldi hauetan *zeba* esaldiaren hasieran jartzeak adierazten du erantzuna aurreratzeke asmoa, abisatzaile bat bezala funtzionatzen du, esaldi txertatuaren hasieran erantzuna markatzeko gogoia, alegia, *zeba* = *porque* bezala. Bistan denez, *zeba* esaldiaren hasieran kokatzen da, eta, bukaeran ez dago inolako atzizkirik, ez *-en* ez *-bait*, ez ezer.

¹ Hemendik eskerrik beroenak Leire Etxart ikasleari.

A- *Atzo man zakun animaleko bronka etxekolanak ez iteagatik.*

B- *Zeba hori ezta hola iten.*

Kasu hauetan ere *zeba* esaldiaren hasieran jartzen da, eta azalpenezko esaldia txertatzeko erabiltzen da, pasarte honetan bi aldiz agertzen da, hiztun berberaren ahotan. Egia da kausazko eta azalpenezko esaldien arteko mugak lanbrotsoak direla. Salaburuk (2005: 188) dioenez, azalpenetara gehiago jo nahi denean, *bait-* menderagailura joko da, eta bereziki, azalpen argigarrietan nekez erabiliko da *-elako* menderagailua.

B- *Ez, ez, gurekin juntatu bino lehen...*

A- *Ah, ia pastuak ziren ia...*

B- *Bai...ez dakit... eske hori igual jua de guay do ez dakit, zeba haurra zarenin (ez da ulertzen)... Ez dakit, nik uste o da holko moda bat edo eske ez dakit zer den.*

A- *Bai, bai, ez dakit...*

B- *Zeba zen tipiko... gu ere ibiltzen ginenin hasi zen Patxi erderaz solasten...*

Hauxe da adibide bat nire ikasle batek erran zuena, kasu honetan esaldia luzea da, eta hala ere, hasieran *zeba* eramaten du. Bistan denez, batzuetan *zeba* partikulak *zertaz*-en ordezkoa da. Ikasle bati galdetu nion ea konturatzen zen horren erabilpenaz, eta erantzuna hauxe izan zen, bere buruarekin harriturik dio batzuetan erabiltzen duela bat, eta bertzeetan, bertzea. Adierazpide honetan badirudi *zertaz* dela horren adierakidea;

- *Da rarua zeba batzuten erten dut “zeba” eta bertzenaz “zetaz” (Baztan).*

Hurrengo kasu hauetan ere, *zeba* lokailuak azalpen funtzioa egiten du:

- *Gaupasak iten... ailetzeko zeba bertzela etzuten denborik. Ta lengo astin adibidez, joan nintzela nere bizilagunakin, tor nintzen honat, ta joan nintzen gero Berara... itten zuten apuntik klasera juateko ta apuntik ta hola hartzeko, txandakatu karrerakuk, do pisukuk, do lo que sea, zeba etzuten denborik ikasteko. O sea, goiztan zuten goiz guzia praktikak ta arratxalde guztian teoria klaseak bedetzik arte.*

- *Nik ez dut eh, euskara batuan solastu behar zurekin, zeba nahiago dut erdaraz solastu euskara batuarekin binon ta..., ostra!*

- *Baina joaten bazara uda horretan Amezetara eta egiten baduzu batuan zeba zuk hutsa badakizu batuan ez... hasten bazara batuan eta hango jendeak erraten badizu: Ah!, pues nik ez dut zurekin... ez? Pues, ze nolako laguntza ematen digute!*

Kasu hauetan kausazko esaldi baten hasieran dago *zeba*, eta zeren-en partikularen funtzioa egiten du, eta batzuetan kausazko esaldia bukatu gabe gelditzen da etena balu bezala. Pasarte honetako azkeneko adibidean, *zeba da...* agertzen da, gaztelaniazko “porque es” esaldiaren baliokide gisa:

- *Ai ba zu, eta... euskaraz ikasten, ez? Hor jende aunitzeri ez zaio... o sea kostatzen zaio ulertzia hori, zeba pentsatzen dute hagitz, eh, eh, praktikoki, ez? Erraten dute: Ingelesa ikasten zeba da...*

- *(...) gainera igual interesatugoa euskaldun Saratar batekin ezagutzen ttuztelako guttigo eh... igual... igual interesatugoa ta dena. Biño hori prezis-*

ki ez dugulako hainbertze izautzen eta... zeba hombre, ikasi dut ere bai Iruñan ta...

Dena dela, Donamariako bertze adibide batean, (Olatz Jorajuriak emana) kausazko esaldiak direla ematen du, azalpenezkoak baino. Ikasleak dio lanean “gaur egun gazteok geroz eta gehiago erabiltzen dugun hitz bat *zeba* da”.

- *Etxera joan da zeba amak deitu egin dio.*

- *Azterketa gainditu du, zeba aste guztia ikasten pasa du.*

5. ZEBa GALDETZAILEA ZERGATIK EDO ZERTAZ-EN BALIOKIDEA

Honatx *ze ba*-ren erabilera berria. Kasu hauetan, *ze ba?*, *zergatik?*-en balioidea da eta egiturari dagokioenez *zeba* + aditza egitura erakusten du:

- *Zeba eskatu barra dut nik?* (Baztan).

- *Zeba erran nauzu “zeba”?* (Baztan).

Kasu honetan *zeba* + *badire* egitura erabiltzen da, bistan denez, *ba*- indartzailea behar da:

- *Zeba badire hainbertze kotxe hemen?* (Baztan).

- *Zeba eztire hasten bertziakin... ya baduela...?* (Baztan).

A- *Baina bai, hauek benpin erraten zuten hori, ez? bazagola jarrera bat beraien, o sea lagunaren artin, ta Nabai da hori ez? T... Zeba ikasten duzu?*

B- *Ez, ez, toki aunitzetan ezin zu... jendia...*

A- *Ia... Zeba? Zeba uste duzue? Han ere ikasten te... bueno igual ez...*

B- *Ikasten te euskaraz, bo... badakit badago jendia badakina aunitz euskaraz biño ez dute ibiltzen ordun galtzen dute... erabilera...*

Baztango neska batek ekarritako adibideak dira honako hauek², bistan denez, hedatuxea dago haien artean:

A- *Zeba gan bar da Iruñera?*

B- *Eztakit* (Baztan).

A- *Zeba erten dugu “zeba”?*

B- *Pues eztakit* (Baztan).

Ondoko esaldian, galderan eta erantzunean, bietan agertzen da *zeba*:

A- *Zeba egon zate hainbertze denbora esperun?*

B- *Ze ba ezin tzun arrankatu kotxia*

Honetan, ordea, galderan bai erabiltzen da, eta erantzunean, ordea, ez:

A- *Zeba etorri zate hain goiz?*

B- *Hotza itten tzulakoz.*

A- *Zeba karri duzu oi?*

B- *Gogua banuelako* (Baztan).

Eta ohar gisa, gazte honek, Baztango adibideak bildu dituenak, hauxe diosku: “nire gurasoek ez dute erabiltzen”.

² Esker mila Nahikari Amiano nire ikasle izandakoari.

6. ZEBa EZ? GALDERETAN

Hurrengo adibidean *zeba ez?* galderan txertatua agertzen da *zergatik ez?* -en baliokide gisa.

Zeba? galdetzaile bakarrari, galderaren hasieran datorrenari, “ez” partikula erantsi ondoren “zeba ez” ateratzen da.

A- *Nik ez dut banatzen.*

B- *Zeba ez?*

A- *Nik ez dut galdu* [Kartetan jolasten ari direla] (Baztan).

Erantzun honetan argi ikusten da gaurko gazteek *bait-* eta *ez bait-* menderagailuez osaturiko esaldiak gutiago erabiltzen dutela. Ingurune honetan euskaldun zahar batek “*ezpaitut galdu*” erranen lukeela esatera ausartuko ginatete:

Ondoko adibide honetan “Zeba ezta?” agertzen da:

A- *Ya... seguro dagola piketue...*

B- *Aber, ta zeba ezta* [ez dago]? *zelako garestie, edo?*

C- *Hombre, pos konparatzen Garraxikin, Garraxi [orkestra bat] zen 700euro ta ezpazen ekipoik...* (Baztan).

7. ZEBa BAI, ZEBa EZ ERANTZUNETAN

Honakoak ere agertzen dira gazteon ahotan, eta “porque sí, porque no” gazteleraren kalkoa dela ematen du. Ikasleek diotenez, erantzuna “bai” edo “ez” bada, *zeba bai* eta *zeba ez* aunitz erabiltzen dugu. Erantzuna bertzelakoa denean, *-lako-*ekin osaturiko esaldiak gehiago erabiltzen ditugu, “zeba”-rekin osatuak baino.

Euskara arautuak ez du erabilera hauek testigatzen, alegia, ez du behar *zeba bai* eta *zeba ez* egitea.

Sunbillako neska batek ekarritako adibideak dira hauek, galdera eta erantzuna egiteko erabiltzen da *zeba*, eta bistan denez, galderan eta erantzunean, bietan agertzen da *zeba*:

A- *Zeba in bartzu hori?*

B- *Zeba bai!*

A- *Zeba ezazu in bar hori?*

B- *Zeba ez!*

Eta haxe, gisa berekoa, Donamariako adibidea, Pilare Telletxeak bildua; bistan denez, kasu honetan galdera *zertaz?* da, eta erantzuna *zeba*-rekin hasten da.

A- *Zertaz etziñon in?*

B- *Zeba... ez.*

8. ZEBa ZEHAR GALDERETAN

Galdetzaile izateaz gain, “zergatik”-en baliokide funtzioa egiten du eta, kasu horietan, zehar galdera bezala funtzionatzen du. Azpian, jakina denez, galde per-pausa dago, eta kasu hauetan *zergatik* galdetzailearen baliokidea da:

- *Eta ez dakite hizkuntza bat zeba galdu den...* (Sunbillako neska gazte batek klasean esanda).

- *Horiek lehen egiten zuten denak euskaraz, ez dakit orain zeba sartu den... us-te moda... do ez dakit tio, zer den... biñon, mundu guztiak, denak, denak!*

8. ZE BADA? EDO ZEBADU?

Atal honetan *ze bada* eta *ze badu* galdetzaile berriek aurreko lerrootan aztertutako ditugunetik aldentzen dira, baina, antzekotasunarengatik erabaki dugu sail honetan sartzea. Kasu hauetan *ba-* aurrizkia, aditz sintetikoaren erantzunetan agertzen dena, galderan ere ageri da.

Ze bada? = *zer da, zer dago?*

Ze badu? = *zer du?*

Kasu honetan *ba* baiezko aurrizkia *bai* partikulatik dator eta perpausaren egiazkotasuna azpimarratzen du. Jakinaenez, adizki trinkoak perpausaren hasieran edo osagaririk gabe doazenean, ezin dira bakarrik jarri; honelakoetan nahitaezkoa da *BA* aurrizkia. *Ba-* aditzari lotua idazten da, eta gehienetan adizki trinkoekin erabiltzen da. Adibidez: *Badakizu non den? Badator autobusa?*

Bortziriko grabaketetan entzun dut behin baino gehiagotan *ze bada* galderetan. Alde batetik, *zeba*-rekin antzekotasuna du, horren analogiaz sortu zitekeen, baina, bertaldetik, gure ustez, erantzunaren analogiaz sortua da galdera; alegia, *bada* da erantzunaren hasiera, eta galdera ere horrela hasten da. Izan ere, erantzunean bai beharrezkoa litzatekeela *Lesakan bada...*, edo *Lurren bada...* edo *badu 'lepra'*.

Bi adibide hauek Bortziriko gazteen grabaketa batetik hartuak dira

A- *Ez. ta asteburu hontan ateri bartzu? Lesakara?*

B- *Eztakit, no sé. Ze bada Lesakan?*

Kasu honetan galderan txertatua agertzen da:

A- *Biño gazte olinpiadetan ez dute eiten kontzertuak, ez?*

B- *ah ez? Ez dakit, gaiñera kontzertuk ezta ez dire... Ta Lurren ze bada?*

A- *Deus, bo eztakit. Badugu lagun bat dela kamarero Lurren.*

Bertze gazte talde bat, Irurikoak hauek:

A- *Ze bada Lesakan?*

B- *Da gazte egune, bada Esne beltza...*

Ze badu?

Aurrekoaren antzekoa da *ze badu* egitura; eraikuntza honetan, *ba-* agertzen da *du* aditz laguntzailearen aurrean kokatua galderetan:

A- *Ze Mikel? Zure lehengusue?*

B- *Zer dago gaixo edo?*

C- *Bai.*

A- *Ze badu?*

C- *Badu, ba... eztakit.*

A- *Lepra?*

C- *Gaur man bar zioten analisisien erantzuna.*

D- *Ze astua!*

Ze bada-ren antzekotasunez egiten da *ze(r) badu*.

A- *Ze ai zate ongi?*

B- *Bai, zu?*

C- *Bai, betiko martxan!*

A- *Tximikoberri nor?*

B- *Kittik.*

A- *Zer badu berrie?*

C- *Botak!*

9. ONDORIOAK

Ikusitakoaren arabera, ondorio gisa erran dezakegu *zeba*-k galde-hitzaren funtzioa egiten duela, *zertaz*, eta *zergatik* galdetzaileekin batera; esaldietan bilyuzik joan daiteke eta baita aditzarekin batera ere. Horrezaz gain, *bait-* eta *-lako(z)* aurrizkiak ordezkatu ditu kausazko zenbait esalditan. Honenbertzez, galdetzailearen funtzioa egiten du zehar galderetan eta baita erantzunetan ere. Honezaz gain, erantzun mota berriak sortu dira: *zeba bai* eta *zeba ez*.

Ondorio gisa aipatu nahi genuke eremu honen hizkerari buruz egindako artikulu bat, Iñigok (2007) burutu zuena. Eremu honetako hainbat ezaugarri oso ongi iruzkintzen ditu, baina, ez du ezaugarri hau aipatzen. Ez dakigu ezaugarri hau berriagoa den, edo Iñigok honen berririk ez ote zuen izan.

Bertzaldetik, jakina da gaurko gazteen hizkeran *eske* erdal- makulua gero eta ohikoagoa dela toki guztietako gazte hizkeran eta baita helduengan ere kausazko esaldietan, esplikatiboetan eta gainerakoetan, baina *zeba*-ren berririk ez genuen. Hedatu daitekeen berrikuntza bat dateke azaldutako hau, eta gisa berean, Bidasoa inguruan, alegia, Bortziri, Malerreka, Baztan eta Sunbilla berrikuntza berberak ari direla sortzen uste dugu, eremu fokal berri bat irudikatu balute bezala.

Azkenik, gelditzen zaigu jakiteko ea eremu hau guztia, eremu fokala bihurtzen ari den. Alegia, dialektologian bereizten diren eremu nagusiak hauek direla har dezagun kontuan: *focus* delakoa (gune indartsua eta berrikuntzen hedatzailea, maiz hiriak izaten dira), *relic* (bazterturik eta komunikazio-etorbide nagusietarik kanpo), eta *transititonal* (bi gune fokalen artean dagoena) (ik. Camino, 2009: 145).

Orain arte eremu hau guztia, (Baztan, Bortziri, Malerreka, Sunbilla) *transititonal* delako eremu batean kokatu izan da hainbat alderditan. Izan ere, Caminok ederki dioenez, eremu hau “hizkuntza-eragin edo joera baten baino gehiagoren orbitaren barrenean, grabitazio-indar linguistiko bat baino gehiago biltzen du etengabe”. Baina, azken urteotan, komunikabideak, giza-harremanak direla eta desberdin irudikatzen ari delako susmoa dugu, eta horrela, orain fokala bihurtzeko aukera gehiago izan dezake, alegia, berrikuntzen hedatzailea bihur dateke orain.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet nire ikasle izandakoei. Nahikari Amiano (Baztan), Jaione Agirre (Sunbilla), Julene Perochena (Malerrekakoa), Leire Baztarrrika (Zubieta), Ander Pellicer (Bera), Iker Bakaikoa (Berako grabaketaren egilea) ikasleei. Beraingandik jaso ahal izan baitut adibidetegi handiena. Gazteen mintzoa ikertzeko haiexek izan dira iturri hoberenak.

BIBLIOGRAFÍA

- AITCHISON, J., 1993, *El cambio en las lenguas: ¿progreso o decadencia?*, Ariel Lingüística.
- BORTONI-RICARDO, S., 1985, *The urbanization of rural dialect speakers, Cambridge Studies in Linguistics, A sociolinguistics study in Brazil*, Cambridge University Press.
- CAMINO, I., 1997, “Zer dago dialektologiaren gibelean?”, in *Nafarroako hizkerak. Nafarroako euskal dialektologiako agiriak*, 11-145.
- , 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Eusko Jaurlaritz, Elkar argitaletxea.
- GILES, H.; COUPLAND, N. & COUPLAND, J., 1991, “Accommodation Theory: Communication, Context, and Consequence”, in H. GILES; N. COUPLAND & J. COUPLAND (eds.), *Contexts of Accommodation. Developments in Applied Linguistics*, Cambridge, Cambridge University Press.
- INIGO, P., 2007, “Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan”, *Euskera*, 1, 52 liburukia (2. aldia), Bilbo, 291-318.
- SALABURU P.; LAKAR, M., 2005, *Baztango mintzoa: Gramatika eta hiztegia*, Iruñea, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- TRUDGILL, P., 2002, *Sociolinguistic variation and change*, Edinburgh University Press.
- ZELAIETA, E., 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Mendaur bilduma, VII, Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernua.
- ZUBIRI, I. & ZUBIRI, I., 2000, *Euskal gramatika osoa*, Bilbo, Didaktiker.

LABURPENA

Ze ba? eta ze bada? Baztan-Bidasoa inguruko gazteen hizkeran. Aldakuntza linguistikoa abian

Baztan-Bidasoa eremuan gertatzen den berrikuntza linguistikoa baten berri ematen dugu hurrengo lerrootan, Nafarroako Baztan-Bidasoa eremuko gazte hizkeran sortzen dena. Hain zuzen ere *Ze ba?* galdetzailearen erabilera aztertzea da gure xedea, kausazko esaldietan eta azalpenezkoetan, galderetan eta erantzunetan. Behin erabilitako metodologia azalduta, esaldiaren erabileran nola den zehazten dugu, eta geroago gazteek erabiltzen dituzten esaldiak aztertzen ditugu. Azkenik, eztabaidagarri suertatzen da eremu hau —gehienetan trantsizio eremua dena— eremu fokal bihur daitekeen ala ez, edo gutienez, berrikuntza linguistikoa zenbaiten abiapuntu den ala ez.

Gako hitzak: Baztan, gazte-hizkera, Bidasoa, *Ze ba?*

RESUMEN

Ze ba? y ze bada? en el habla de los jóvenes de Baztan-Bidasoa. Un cambio lingüístico en marcha

Se da cuenta en este artículo de una innovación lingüística que se utiliza en el habla coloquial de los jóvenes de la zona de Baztan-Bidasoa. Se trata, en concreto, del uso de la estructura *Ze ba?*, como interrogativo, así como partícula introductoria de respuesta en las oraciones causales y explicativas. Una vez explicada la metodología utilizada, pasamos al análisis detallado de los seis usos diferentes en la frase; y posteriormente, mostramos estructuras semejantes empleadas por estos jóvenes. Finalmente nos cuestionamos si esta zona, generalmente clasificada como zona de transición, puede convertirse en zona focal o, por lo menos, en lugar desde donde parten algunas innovaciones lingüísticas.

Palabras claves: Baztan, lenguaje juvenil, Bidasoa, *ze ba?*

RÉSUMÉ

Ze ba? et ze bada? dans le langage des jeunes de la zone du Baztan-Bidasoa, un changement linguistique en cours

Dans cet article, nous abordons une innovation linguistique que des jeunes de la zone du Baztan-Bidasoa utilisent dans le langage parlé. Il s'agit concrètement de l'utilisation de la structure *Ze ba?*, comme interrogation, et comme particule introductrice de réponse dans les phrases causales et explicatives. Après avoir expliqué la méthodologie utilisée, nous passons à l'analyse détaillée des six usages différents dans la phrase; et ensuite nous montrons des structures semblables à celles utilisées par ces jeunes. Nous nous demandons enfin, si cette zone, généralement classée comme zone de transition, peut devenir une zone focale ou, tout au moins, un endroit d'où partent certaines innovations linguistiques.

Mots clé: Baztan, langage juvénile, Bidasoa, *Ze ba?*

ABSTRACT

Ze ba? and ze bada? in the speech of young people from the from the Baztan-Bidasoa area. A linguistic change on the way

This article records a linguistic innovation used in the colloquial speech of young people from the Baztan-Bidasoa area: the use of the structure *Ze ba?* as interrogative and introductory response in causal and explanatory sentences. Following an explanation of the methodology used, we go on to provide a detailed analysis of the six different uses of the phrase, later showing such structures as used by these young people. Finally, we wonder whether this area, generally classified as an area of transition, may become a focal point or, at least, a place from which linguistic innovations may appear.

Key words: Baztan, juvenile language, Bidasoa, *Ze ba?*